

ZUZENEAN

00:00

00:00

# LaPublika Irrati Simposiuma emitituko dugu



Da  
to  
rre  
n  
os  
tir  
ale  
an  
,  
ur  
ria  
k  
28,

## LaPublika Irrati Sinposiuma emitituko dugu Casares Irratian.

La Publika Irrati Simposiuma consonnik zuzendu eta Donostia 2016 eta Tabakalerak ekoiztako nazioarteko sinposium bat da, zeinaren barruan hainbat jarduera egingo baitira, hala nola performanceak, kontzertuak, solasaldiak eta soinu-instalazioak. Horiei guztiei esker, ikus-entzuleek hausnartzeko aukera izango dute, eragiten diguten gai publikoen ganean arteak nola eragiten duen ikusteko. 15 orduetik gora iraungo du eta bi tokitan egingo da, nagusiki: Tabakalera Kultur Garaikidearen Nazioarteko Zentroan eta Dabadaba kontzertu-aretoan.

Bi zatitan egingo da sinposiuma: batetik, 10:00etatik 21:00etara, Tabakalerako patioan jardungo dira, eta, bestetik, 21:00etatik 04:00etara, Dabadaba kontzertu-aretoan. Eguneko saioan, irrati-areto bilakatuko da Tabakalera, Alex Tarragüel eszenografo katalanaren gidaritzapean, eta zuzeneko emanaldiak eskainiko dira, online, eta publikoarekin. Gauean, Dabadabara joango da LaPublika, programazio zabalarekin jarraitzeko.

Jaialdi baten pare, ehunka parte-hartzailek eta hamarnaka jarduerak osatuko dute sinposiuma. Arteaz, politikoaz eta komunaz arituko dira, eta gai horien inguruko hausnarketa bultzatzen duten ekintzak ere egingo dira, hala nola elkarrizketak, eztabaidak eta aurkezpenak, bai eta ekintza performatiboagoak ere, hala nola esku-hartze artistikoak, performanceak eta kontzertuak.

Hori guztia irratsaio baten formatuan eskainiko da, Alicia San Juan, Goizalde Landabaso eta Richard Huw Morgan esatarien gidaritzapean

Informazio gehiago [www.lapublika.org](http://www.lapublika.org) webgunean.